

Erref. kodea: LAF-219-191 [43]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Iturriozt Urizar, Antonio: *Egizko gertaera
bat 'Basotxarrixak'*

EGIZKO GERTAERA BAT
"Basotxarrixak"

Jose Iñasio, Azkoiti'tik mendietarontz aurkitzen dan errixka batean bizi zan. Urteetan berak bai irurogeitik gora. Euskalerriko sendi gei geienak oī diran bezentzateko sendi zintzoaren buru baitzan, anbat seme-alabaz.

Gizon ixilla ta langillea Jose Iñasio ~~Jurea~~. Gizon ixilla...! Auetxek dira itz bi, gure bazterrean edonor, naiz ta andikiena izan, anitz begirapenez goraipatzen dutenak. Ospe oitzaz iritxi zan Jose Iñasio zartzarora.

Izendatu nai ez degun erri txiki artan ez zan beñera ezertxo gauza nabaririk ezagutu izan Jose Iñasio'n urteetan. Bare, ixiltasunaren magalean zegian aurrera biziak an.

Baiña bein baten eldu zitzaien txaurrenaren kaku-makua zirudian gertakaria, bere eragipen ziztriañaren pean agure jator ura nastu zuena. Dakusagun nola: Negumíña, egunbaño lodiago zegoen elurra, ez mendietan soillik, orobat beitietako aranaldeetan. Esnedunak eraman zuten errira, basurde izugarri baten oñatzak elurrean ekus izan zituztelako berria. Egia esan, barano aietako egoiliarrak aurretiaz eztuten iñolazko basurde-agerketa oroimenik; eta esnedunak ziotenez, oñatz aiek adirazten zutenaren arauz ba'omen zeuzkan amar arru goititik pisti arek.

Alako albizteak aditurik, adoretu ziran erritxo artako mutil gazteak. Berealako batén eratu talde ausardia ta erabaki zuten biaramunean, eguna argitzean, basurdeari guda ematea. Errian zegoen ardandegi bakarra aipatu zuten biltzar-toki.

Eguna gabe bildu ziran eiztariak ardandegi artan, bakoitzaz bere iskilluaz; batak, aizkora zekarren; besteak, aitzurra; urrengoak, mallu erpin-geztaritua, ta ala.

Lekorean ari zan otz audiari gogor egiteko ta goizaldian barneko arra dagan eraz illerazteko adarreko bat edo beste patar edaten zeudelarik, aurkeztu zitzaien Jose Iñasio, bostortzekoa bizkarrean zekarrela. Arritu ziran mutil gazteak eta eretako batek zirautsan,

--Ene bada, Jose, zu ere gurekin al zatoz? Elurretan basurde billa ibiltzea ez ote lankizun zakarregia zure adiñerako?

Baiña agure adoretu ark ~~atzion~~ iñori jaramonik ere egin. Urbildu ardandegiko ugazabarengana ta agindu zion edontzi bete patar ateratzeko, sudurraz-bera zerion

dindirria eskumuturrez txukatzen zuen artean.

Eitzari taldea landaz aurrera zapean, elurra belsunetaz gora eltzan zitzakien. Jose Iñasio aurrenen zijoalarik, berak ikusi zituen, beste iñork baño len, basurdearen oñatzak.

Aizak, Pello --ziotsan gazte batek bere aldemenekoari-- ez genuan gauza erraza, ordea, agure ori orren kementsua zanik uste izatea.

Piztiaren elurtzako oñatzak eren ageri nabariez bidatzen zituztela, anbat ibillera larri egiñen geroz, nozait atzeman zuten bere ezkutalekua; sasi ta arantzarte zabala ta sakona zan berau. Eitzariak, biraldian ustaia eralduaz, inguratu zuten anabasa ura ta laster asi ziran bertara arrika, ojuka ta txistuka.

Basurdea, lenengoz zurrunga zakarrak eman izanarren, etzuen nai izan irten bere estalgunetik; baina ari ta ari, alakoren baten or agertu zezakien bizkarreko zurdak txutik zituztela, purruztada izugarriak egotziz. Aietako mutil batek jo aizkoraz sorbalda gañean eta aberea, ukaldiak suturik, itzuli zezakion berberean eta albo-ordez zango batean zaurituz geroz, an Iaga zuen elurtzan, blai odoletan; eta bigarren erasoaldira zioakiola, mutil ura iretsi naian, alboratu Jose Iñasio abereari katomzaren jauziz eta bostortzekoa saietsetik zein sarreraziz, lurrean josita zeukan la eutsi zion, beste eitzariak aratu zitzaizkion arteño. Oroen eskuz bukatu zioten bizia basabereari. Ark bere azken-ostikada ta intziriak eman zituenean, gazte aiek egundañoko azkarren irten zuten beren marratik, oiz eta txaloka, txapelak gora jaurtigiz. --Gora Jose Iñasio! Gora gure buruzagi kementsua!--, aditzen zan.

Nork daki nola ler eragin etzioten agureari, eman ziozkaten besarka kartsuez. Baina ala ere pozarren zegoen Jose Iñasio, gudaldi artako gizaguren bera gelditu baitzan. Nior artara jarri gabe, berez-berez biurri zan eitzari taldearen gudalburu.

Mutil zaurituari tarratada batez alkandoratik atera zioten oial zatiaz ta beraz lotu zangoan zeukan sakaila. Gero, lotu esku-oñak abereari, iragan eren bitarteetatik pago-adar sendorra luzenik luzen eta, bai mutil, bai piztia bizkarrez zean karzkiela, abiatu/eitzari taldea errironz. Aberea, agatik zintzilika dingili-don goloan zekarten, jualetzar beltz eta itsusia iduri, elur zuriaren gañaldean oraño obeklago zeindutzen zitzaizkiola bere beltzura ta itxura izugarria.

Errira sarreran, or zetorren Jose Iñasio guzien surretik, ordu artan bera zan gudalburu kementsuari zegokien tajuz: Ierden, ausarditsu, besoai eragiñaz, ogeiren bat urte gutxitu bailitzakion.

Ardandegiko maieren gañean utzi zuten basaberea, auzokoek ekus zezaten.

Geroztik izan ziransak erritxo artan; Jan-edan oparoak egin zituzten eta bertso berriak atera ere bai, eretzaz Jose Iñasio anitz goraipatzen zutela.

Arazo orien aztapean zearo bestelatu zan agure ura; lenago gizon ixilla ta erdi-lotsakorra izan eta abar, orain berak zerebilzkian zalaparta nabarmenenak ardandegian, egunero, etxeako arrimen andienean zeduzkala. Etxeratzen zanean, begiak nirlar egiten zioten; iñoz bein alborakatxoak ere ba-zegiztan, ardo-atsa zeriola. Ori gauaz agitzen zitzalon. Egunaz, etzuen ark naiko asti auzokoei banan-banan basurdatearen gora-berak etengabe atzalpentzko baizik. Bere adixkideak, matraka ura eun bider entzunez gogaiturik, iges egiten zioten. Amar aneurkin biraldian etzuen Jose Iñasio'k gizaki bakar bat basurdearekiko gertaera ura txeeki etze- kianik.

Egun baten, alia ardandegian zarataz zebillen artean, bildu etxeakoak eta artu zuten erabakia ark zeukan setakeri txaldan eta alkekitsua nolabait/atera erazotzko. Ta biaramunean seme nagusien biak agitz benazki itzegin zioten, kamuskeri ura bertan bera ta beingoan laga zezala larderiatuz. Seme aiek, eztabaidea luzea ezkero aitaren baia ar izan zutenez, sakon ta gozoro pozez beterik arkitu ziran. Etxe artara, berriren berriz, itzuli zan bizimen egokiaren atsegina.

Orrelaz zirala, seme nausiak eskaindu zion bazkaria etxean, Burgos' en gudaletxean urteak egiñen geroz erriratu zan Txomin bere adixkide miñari. Bazkari oparoa, izan ere. Anbat ipui erabil zituzten maiean, bai etxeko mutillek, bai arrotzak. Jose Iñasio izan zan soillik aoa ideki ere etzuena, jan eta edan egiteko ezik; garbiki nabaitzen zitzakion an zerebilzkien arloengandik urrun zeukana burua. Orratio, alakoren baten, naiezian edo oarkabez bezela, usteze ameskaitz nastesu batetik atzarri zala, esan zuen bere Azkoiti'ar izkeraz,

--Txomin..., e?; an ere... ibillikoie..?

--Jose Iñasio jauna,,, zer? -- erantzun zion arrotzak.

--Diotsut,Txomin,an ere...ibillikoiela! Nola ezpa,ibillikoiie bai...

Seme nausiaak garbi zekustanez aita nolako arira zetorren(berak dollortzat zeukan ari madarikatu batera) agitz saminduta,aserre baño aserreago zirautsan,"ori bai dala itza jatea,aita,egundaño alakoriki". Eta Jose Iñasio'k,ordurako barnean sortuta gora zetorkion basurdearekiko setakeriaren indarrari eutsiteko almenik gabe,zital **jardetsi** zion,

--Nik etsiat auxe baizik;an ere...,ibillikoiela,ibillikoiela;

--Baina aita,nola Txomin'ek jakin dezake zertzuk liraken "ibillikoien"alu oriek?

--Basotxarrixak,seme,basotxarrixaaaak...ii

Antonio Iturrioz Urizar
Calle José T. Cuéllar, núm. 138-12
MEXICO, D.F. (8)

Abril de 1954.

Atzalpena: Adarrekoa,patar-neurritxoa zan gure sorterrian,Fibar'en.

...and probably, after stock market collapse, 1929. However, the 1929
stock market crash was preceded by a period of relative stability
from 1924 to 1928. This period of stability was characterized by
the growth of the economy, particularly in agriculture, which
was stimulated by the introduction of new technologies such as
tractors and fertilizers. The period of stability ended in 1929 with
the Great Depression.

[Handwritten signature]
J. T. C. COOPER

Acting Chairman

